

BERMEOKO ARRAUN ALKARTEAGAZ LANKIDETZA HITZARMENA

Bermeon, 2019ko uztailaren 2an

BATUTA

Alde batetik, ARITZ ABAROA CANTUARIENSE jauna, 72.317.304Z NAN zenbakiduna, Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuko presidentea

Eta bestetik, AGUSTIN ARAMBURU GARCIA jauna, 14687624-P NAN zenbakiduna, Bermeoko Arraun Alkarteko presidentea

PARTE HARTZEN DABE

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE jaunak, Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuaren ordezkari izenean, Batzorde Eragileak, 2015eko maiatzaren 12an hartutako erabakiari jarraituta eta Toki Errejimenerako Oinarrien Legearen 21.1. b) eta r) artikuluek emandako ahalmenaren arabera, eta

Beste aldetik,

AGUSTIN ARAMBURU GARCIA jaunak, BERMEOKO ARRAUN ALKARTEaren ordezkari izenean, Alkartek ematen deitzen ahalmenaren arabera.

ADIERAZTEN DABE

Bermeoko Udalaren ahalmenaren artean dagoela kirola eta kirol-jarduerak antolatu eta sustatu, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak antolatzea, Euskadiko Toki Erakundearen buruzko 2/2016 Legearen 17.1.19) artikulua bat.

Hori horrela, Udalaren asmoa dala arraun jarduerak bultzatzea eta babestea, Bermeoko udalerriko identitateagaz oso modu estuan lotuta dagoan kirola dalako.

Herrian arraun alkarte bakarra egonda, Udal Patronatuak taldea lagundu nahi dau, arraunaren praktikak jarraipena euki daian berdintasunean oinarrituta Bermeoko Herrian.



Hori horrela, alderdi bien lankidetzeara arautzea da hitzarmen honen helburua.

ERABAKITZEN DABE

LEHENENGOA: Bermeoko Arraun Alkartek, arraunaren praktikea jarraitzea eta bere kirola udalerrian mantentzea bultzatuko dau, Bermeoko neskek zein mutilek, ume zein gazteek parte hartzeko aukerea berdina izan daien.

BIGARRENA: Bere aldetik, eta zio hau bide dala, Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuak BERROGEI ETA HAMASEI MILA EURO (56.000,00 €) ordainduko deutsoz Bermeoko Arraun Alkarteari. Diru kopuru hau zatika ordainduko da, 2019. urte barruan. Ordaintzeko modua honakoa izango da: hitzartutako kopuru osoaren % 75a, hau da, 42.000 € hitzarmena sinatu eta lehen zatia kobratzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztu eta gero, eta gainontzekoa, 14.000 €, irailean, dagokion justifikazioa egin ondoren.

Dirulaguntza honeri aurre egiteko Aurrekontuaren izendun partida honakoa da: 00000 34100 4810105

HIRUGARRENA: Diru-laguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira. Baten emoteak ez deutso derrigortasunik eragingo Kirol Patronatuari, eta ez dau beste urte batzuetarako eskubiderik emoten ez aurrekaririk ezarten.

Diru-laguntza ezin izango da gehitu ez berrikusi (ezin da erreklamaziorik egin).

Jasotako diru laguntza lortu daitezkezan bestelako sarrera publiko zein pribatuekin bateragarriak izango dira, beti ere gain-finantzaketarik ez dagoen bitartean.

Horrela izanda Arraun Alkartea behartuta egongo da bere finantzaketarako lortzen dauzen bestelako sarrera eta diru laguntzen barri emotera eta, danatara %100etik gorako finantzaketarik lortzen badau, Kirol Patronatuari horren barri emoten, gain-finantzatutako kopuruak berreskuratzeko prozedurari hasiera emoteko.

Horrela egingo ez balitz, zigorra ipintzeko arrazoia izango litzake, itzuli beharreko kopurueri lege interesak aplikatzearen kalte barik.

LAUGARRENA: Arraun alkartek honako baldintza honeek beteko dauz:



- a) Egoitzea Bermeon eukiko dau eta Bermeoko arrauna bultzatuko dau.
- b) Irabazteko asmo bakoa izatea.
- c) Udalarren Kirol Patronatuak beste inoiz diru-laguntzaren bat emon badeutso, diru-laguntza horren kontra egindako gastuak justifikatuta eukitea.
- d) Hitzarmena sinatzen dan egunean tokiko zerga zorrak ordainduta daukiezala kreditatu beharko dabe. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.
- e) Identifikazino fiskaleko kodea eukitea eta egunean egotea betebeharriskaletan eta Gizarte Segurantzaz.
- f) Bermeoko neskek zein mutilek, ume zein gazteek kirol honetan parte hartzeko aukera izan daien ahalegina egingo dau.
- g) Ezin izango da inolako diru- laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako.
- h) Arraun alkarteak aurrekontuaren %50etik gorako autofinantzaketea izan beharko dau.
- i) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso ez izanaren aitorpena.

BOSGARRENA: Hitzarmenaren lehen ordainketea egin aurretik, Kirol Patronatuko presidentearen izenean, 4. puntuan eskatzen diran baldintzak beteten dirala ziurtatzen dauen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, Arraun Alkarteko presidentek sinatuta, udaleko zein Kirol Patronatuko Erregistro Orokorrean, edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 16.4. artikuluan jasotako bestelako erak erabiliz. Agiriak aurkezteko hilebeteko epea egongo da, hitzarmena sinatzen dan unetik zenbatzen hasita.

Horretaz ganera, udal dirulaguntza eskaera orria normalizatua behar dan moduan osatuta (**1.1 eta 1.2 eranskinak**) aurkeztu beharko da eta taldean parte hartzen duten arraunlarien kopuruak, asteko entreno orduak, zenbat talde, zein mailatan, eskolar mailako fitxak, federatu mailako fitxak, e.a. dagokion inprimakia beteta (**3.1 eranskina**)

Diru-laguntzearen **bigarren zatia** kobratu ahal izateko, agiri honeek aurkeztu beharko dira:

- a) **Jarduera txostena edo memoria (2.3 eranskina):** Aurreko urtean eginiko jardueren txostena, bertan deskribatu beharko dira egindako jarduerak, zabalkunderako hartutako neurriak, hitzarmenean jasotzen diren beste baldintza batzuk, jarritako helburuak eta eskuratutako emaitzak eta helburuen lorpen maila. Proiektuaren garapenean egindako aldaketak, hala bada. Txostenaren gehienezko luzerea 4 orrikoa izango



da. Atal honetan zehaztu beharko da euskerearen erabilerea kirol jardueretan (entrenamentuak, publizitatea...)

- b) **Kontu garbiketaren aitorpena (2.2 eranskina) eta Diru-sarreraren eta gastuen zerrenda(2.1 eranskina)** .Puntu honegaz batera fakturak erantsiko dira, dagokion ordainketa ordainagiriarekin.

Dokumentazioaren aurkezpena egiterakoan ez bada aurreko puntuetan eskatutakoa formalizatzen, interesdunak **10 eguneko epea izango dau akatsak zuzentzeko**. Denpora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten jakola ulertuko da.

Agiri honeek ez aurkeztea diru-laguntzea ukatzeko eta ordaindutako lehenengo zatia itzultzeko zioa izango da.

Lehenengo zatia itzuli behar izatekotan, lege interesak gehituta itzuli beharko da.

SEIGARRENA: Euskerearen erabilerea

- Euskeraz dakien entrenatzaileak eta patroiak hobetsiko dauz Bermeoko Arraun Elkartek.
- Entrenamentuetan eta estropadetan euskerea erabilteko ahalegin berezia egingo da. Entrenatzaileek, patroiek zein erramulariek euskeraz egiteko hizkuntza jokaerea izango dabe eta entrenamentu guztietako hizkuntzea euskerea izan daiten lana egingo dau Bermeoko Arraun Elkartek. Horretarako, euskerea erabilteko planifikazinoa egingo dau.
- Bermeoko Arraun Elkartek egingo dauzan ekintza guztietan bermatuko da euskerearen erabilerea bai ahoz, zein idatziz, eta arreta berezia eskainiko jake gazteakaz edo gazteei zuzenduta egiten diran jarduera edo ekintzei. Izan be, umeentzat eta gazteentzat eratzen diran moeta guztietako ekintzak euskeraz izango dira.
- Publizitatea eta komunikazio ekintzak euskeraz egingo dira bai ahoz, zein idatziz: argitaratzen diran programa, iragarki, ohar, kartel eta gainontzekoak euskeraz egingo dira; Bermeoko ikurrinaren programazioan argitaratzen dan publizitatea euskeraz argitaratuko da; prentsaurrekoak euskeraz egingo dira. Euskerea ez dan beste hizkuntzaren bat erabiltekotan publizitate eta komunikazio ekintzetan, lehentasun osoa eukiko dau euskereak (3-1).
- Hitzaldirik egitekotan, euskeraz izango dira. Hitzaldietan, hizlariak euskaldunak izango dira. Kasuren batean, hizlaria ez balitz euskalduna, aurkezpen osoa euskeraz egingo da eta galdera erantzunetarako, itzultzaile



lana egingo dauen pertsonaren bat egongo da euskeraz egiten diran galderak hizlariari azaltzeko.

- Kanpainarik, lehiaketarik edo antzekorik antolatzen bada, euskeraz egingo dira, bai ahoz, zein idatziz. Euskerea ez dan beste hizkuntzaren bat erabiltekotan, lehentasun osoa eukiko dau euskereak (3-1).

- Bozgorailu bidez mezurik emon behar izatekotan, euskeraz emongo dira horreek mezuak. Euskerea ez dan beste hizkuntzaren batean emon behar izatekotan, euskereari lehentasun osoa emongo jako (3-1)

- Harrera ekitaldiak edo ospakizun konkretuak euskeraz izango dira, eta ahalegin berezia egingo da bertan hitz egingo daberen arraunlariek, entrenatzaileek... euskeraz egin dairen, euskeraz egingo dabenei lehentasuna emonaz.

- Bermeoko Arraun Elkarteak aparteko ahalegina egingo dau komunikabideakaz euskeraz egiteko.

- Bermeoko Arraun Elkarteak udalari, Kirol Patronatuari eta herritarrei aurrez-aurreko hartu-emon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz bideratuko deusez. Bestalde federazino, epaile eta abarrakaz be hartu-emonak euskeraz izateko ahalegina egingo dau.

- Euskerearen kalidadea bermatu beharko da aitatutako ahozko eta idatzizko ekintza guztietan, eta udaleko Euskera Sailaren laguntzea izango dau arraun alkarteak hizkuntza aholkularitzea eta laguntzea behar dauenean.

- Denboraldi amaieran hizkuntza erispideen inguruko balorazinoa egingo da eta hurrengo urteko helburuak ezarriko dira.

- Udalak, Kirol Patronatuak eta Bermeoko Arraun Elkarteak agerraldi publikoa egingo dabe, Bermeoko Arraun Elkarteak egindako lana publikoki aitortzeko eta arraun alkartearen konpromisoak zeintzuk diran zabaltzeko.

ZAZPIGARRENA: Debekatutako jarduera sexistak.

- Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

- Ezin izango da adierazi, pertsonen, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela, ez eta objektu sexual soilak direla ere. Orobat, ezingo zaie zabalkundea eman emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten edukiei.



- Eskabidea aurkezten duen pertsonak eta erakunde eskatzaileak ez izatea administrazio – zehapenik edo zehapen penalik sexu – diskriminazioa egiteagatik; eta bestetik emakumeen eta gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean debekurik ezarrita ez izatea.

ZORTZIGARRENA: Arraun alkartearen betebeharrak:

1. Hitzarmen honetan jasotakoa betetea.
2. **Arraun alkartearen ekintzen publizidadean, Udalaren Kirol Patronatuko logoagaz agertzea.**
3. Kirol Patronatuari lankidetzaren kontrola egiten iztea.
4. Aurretik emondako diru-laguntza guztiak justifikatuta eukitea.

BEDERATZIGARRENA: Jasotako diruaren justifikazioa.

Arraun Alkarteak aurreko urtean jasotako diruaren justifikazioa egin beharko dau, honek dokumentuak ekarrita:

- Gastuen eta sarreraren balantzea, gastuen ganeko faktura originalak edo fotokopia konpultsatutak aurkeztu behar dira
- Egiatzen egin eta gero, originalak itzuli egingo dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, horreek ez bada balio diru-laguntzearen helburuak lortzeko.
- Diru-laguntza ezin izango da erabili kirolariei ordaintzeko, primetarako, oparietarako, protokoloa ekintzetarako eta bazkarietarako.
- Emondako diru guztia gastatu ez bada, justifikazioa eginda, itzuli egin beharko da.

HAMARGARRENA: Hitzarmena ez betetzearen ondorioak.

Arraun Alkarteak hitzarmen honetan jasotakoak ez betetzeak, dirulaguntza murrizteko edo kentzeko arrazoia izango da, Dirulaguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legearen 37. Artikuluagaz bat eta, horretarako, lege bereko 42.a Artikuluak xedatzen dauan prozedura jarraituko da.

HAMAIKAGARRENA: Udalaren betekizunak, diru publikoaren erabilerari jagokonez.

Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuak, bere aldetik, eta Diru laguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legearen aginduei jarraiki, honako eginkizunak beteko dauz:

- Emondako diru laguntzearen kontrolak egin, diru laguntza oinarritzen dauzen helburua eta egintzak benetan egin dirala egiaztatu ahal izateko.
- Lege berari jarraiki, diru laguntzearen oinarriak ez dirala bete ikusten bada, edota ez dirala era egokian justifikatu ikusi ezker,



desbideratutako diru publikoa berreskuratzeko, udalak jagokozan prozedura eta espedienteak izapidetuko dauz.

- Era berean, hitzarmen honetan jasotako baldintzak zehatz betetzen ez dirala ikusi ezkerro, emondako diru laguntza berreskuratzeko, udalak jagokozan prozedura eta espedienteak izapidetuko dauz.
- Eta bardin jokatu dau udalak, emondako kopuruak hitzarmen honetan jasotako helburuak betetzera bideratu beharrean bestelakoetara bideratu dirala egiaztatuko balitz.

HAMABIGARRENA: Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen honek 2019. urtean eukiko dau eragina, aurreko atalean aitatutako ondorioak 2019. urtea amaituta izapidetu edota aplikatzearen kalte barik, beti be preskripzino epearen barruan.

HAMAHIRUGARRENA: Arau-hauste legez hartuko dira jokabide honeek:

- 1.- Laugarren ataletik bederatzigarren atalera jasotako betebeharrak ez betetzea.
- 2.- Jasotako dirulaguntza ez justifikatzea horretarako emondako epean.
- 3.- Eskuratutako bestelako sarreraren barri ez emotea, bardin publikoak zein pribatuak izan.
- 4.- Gain-finantzaketarik balego, horren barri ez emotea edota itzuli beharreko kopuruak ez itzultzea.

Lehenengo atalean jasotako arau-hausteen kasuan, onartutako dirulaguntza murriztea ekarriko dau zigor moduan, egindako ez betetzeen garrantziaren arabera kalkulatu dana, ez bada ez betetzeen larritasunagaitik dirulaguntza osorik itzultzea erabagitzen dala.

Beste hiru ataletan aurreikusitako arau-hausteen kasuan, dirulaguntza osorik itzultzea ekarriko dau zigor moduan, eta hurrengo urteetan dirulaguntza barriak eskuratzeko ezintasuna suposatuko dau.

Zigor horreek ipinteko, hitzarmen honen hamargarren artikuluan adierazoten dan lege, 38/2003 legeak aurreikusitako prozedura jarraituko da eta, erabagia hartu orduko, interesdunari entzunaldia emoten jakola bermatuko da.

HAMALAU GARRENA: Legedi aplikagarria.

Hitzarmen honeri honako legedia aplikatuko jako:

1. Dirulaguntzak arautzen dauzan 38/2003 Legea.



2. Dirulaguntzen Legearen Erregelamendua onartzen dauan 887/2006 Errege Dekretua.
3. Zuzenbide administratiboko arau orokorrak.
4. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Hori horrela, hitzarmenean aurreikusten ez dan guztirako, edozein zalantza argitu eta hitzarmena interpretatzeko, aitatutako legediak aurreikusitakoa jarraituko da zehatz.

HAMABOSGARRENA: Hitzarmenaren izaera administratiboa.

Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Ondorioz, honen aplikazio edo interpretazioan hartzen diran erabakiak bide administratiboari amaiera emongo deusez eta zuzenean aplikagarriak izango dira, Administrazioarekiko Auzibidean errekurrizko eskubidearen kalte barik.

Eta honela ager daiten honako hau emoten dabenez, agiri hau onartzen dabe, lau ale sinatuz, eragin bakarrerako.

KIROL PATRONATUKO
PRESIDENTEA
Aritz Abaroa Cantuariense

ARRAUN ALKARTEKO
PRESIDENTEA
Agustín Aramburu García



Erlazionatutako agiriak:

1.-1



DIRULAGUNTZA
aurrekontua (3).xlsx Dirulaguntza eskaera

1.2



241. - 0419

2.1



243. -0419 Zerrenda
diru sarrerak eta gast

2.2



245. -Zuritze kontua
(1) (1).doc

2.3



244-0419 Jarduera
txostena edo memori

3.1



Fitxen laburpena.xls

